

Iñaki Martínez de Luna

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

## Euskal Herri paradoxikoa

**E**uskal Herria paradoxa hutsa dela pentsatzen hasia naiz. Adibidez, Euskal Herriko zazpi probintzia historikoak aldarrikatzen dituen Zazpiak Bat leloak, euskal herritarren %30entzat baino ez du zentzurik; beste horrenbeste dira EAEko hiru lurraldeekin Euskal Herria/*País Vasco/Pays Basque* hobekien identifikatzen dutenak, Nafarroa eta Iparraldea bazter utzirik. Horrela diosku kaleratu zen *Euskal Kultura eta nortasuna XXI. mendearen hasieran* izeneko ikerlan soziologikoak. Azken buruan, datu horietan komunitate edo herri bat osatzearen kontzientzia eta eraketa politiko-administratiboa ditugu, aurrez aurre; *gemeinschaft versus gesellschaft*, nolabait.

Lurraldetasunaren inguruko auzi horrek beste ikuspuntu kontrajarri batzuk agerian uzten dizkigu, era berean: *euskaltasun prototipikoko* lurraldeak *versus* Euskal Herri anitzaren aldarrikapenarena, hain zuzen. Izan ere, batetik, EAEko biztanleriaren %22rentzat Bizkaia eta Gipuzkoa dira Euskal Herria hobekien definitzen duten lurraldeak eta, Iparraldeko %31rentzat, aldiz, bertako barnealdea (Lapurdiko barnealdea, Nafarroa Beherea eta Zuberoa). Halako iritziak dituztenentzat, gainontzeko lurraldeek ez omen dute ongi betetzen Euskal Herria tipikoaren eta topikoaren erdua. Non gelditzen dira gure gizartearen egungo aniztasun kulturala eta lekuan lekuko berezitasunak? Amestutako eta begibistak *Euskal Herri*en arteko norgehiagoka, berriz ote?



ALBERTO ELSOEGI



Euskal Herriko irudikapen  
sinbolikoaren eta bere gauzatze  
gordinaren arteko talka etengabe  
luza liteke: herri berezitua izateko  
nahia *versus* globalizazioak  
ezarritako berdintasuna –berdinkeria?–



Euskal Herriaren lurraldetasunaz eta irudikapenaz dauden ezberdintasunen zergatia horrela laburbiltzen zen esandako lanaren ondorioetan: “Ezberdintasun horiek lurraldeetako berezitasunek, tradizioek, unibertso sinbolikoek, estatuek bultzaturiko akulturizazio/kulturizazioek, norberak egindako hautuek eta horien guztien nahasmenak eragindakoak dira”. Bai, dudarik ez, oso ulergarriak dira interpretazio hain ezberdin horien iturburuak, baina ulertze horrek ez du aldea txikiagotzen.

Areago, alegiazko Euskal Herriaren eta bere ageriko gordinetasunaren arteko aldea euskararen inguruan ere aurkitzen da; hizkuntza horren aldarrikapenari errealitate erdalduna kontrajarri, hain zuzen. Adibidez, gehiengo batek euskara Euskal Herriko nortasun eta kulturaren ezinbesteko osagaitzat jotzen duen bitartean, horrekin inondik inora bat ez datozen beste hiru datu ditugu, aldi berean: a) euskal kultura zer den galdetzean “euskaraz egindakoa” dela erdiak baino gutxiagok (%48) aipatzea; b) “pertsona batek bere burua euskal herritartzat izateko” euskaraz egin behar duela %17k baino ez aipatzea; c) EAEn elebitasuna ofiziala izanda ere, eremu horretako herritarren %2k baino ez du zinea euskaraz ikusi edo %6k baino ez du hitzaldi bat hizkuntza horretan entzun.

Hortaz, Euskal Herriko irudikapen sinbolikoaren eta bere gauzatze gordinaren arteko talka etengabe luza liteke: herri berezitua izateko nahia *versus* globalizazioak ezarritako berdintasuna –berdinkeria?–; Frantzia eta Espainiako estatuei aurre egiteko sinbolismo sendoan oinarrituriko berariazko herri baten irudia *versus* estatu horiek erdi irentsitateko gizarteak.

Arestian esandako ikerlan soziologikotik harantzago kontraesan paradoxikoen leloa gure betiereko auzian ere islatzen da, beste behin: alegia, gehienon bake-nahia *versus* berau lortzeko dugun ezintasuna? –Sisiforen ahaleginen antzutasuna gogorarazten duena–.

Paradoxaren patua ote da euskal herritar guzti-guztiok batzen gaituen ezaugarri bakarra? ■

